



# ALEA

arabako aldizkaria



TXEMA BLASCO

**"HAMAIKA BIZITZA  
EMAN DIZKIT  
AKTORE LANAK"**



Izan  
zaitez  
ALEAkide



[alea.eus/harpidetzak](http://alea.eus/harpidetzak)



# ALEA 186

2019-03-15 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

E. ANDA

## Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Iberiar penintsularen historia genetikoa osatu dute.
- 8 **Protagonista.** Txema Blasco aktorea.
- 12 **Iritzia.** 'Teknika eta artea', Edu Zelaieta Anta.
- 14 **Sarean.** #Despopulazioa.
- 15 **Iruditán.** Martxoak 8.
- 16 **Gizartea.** Haizearen tunela berriro martxan jartzeko plana.
- 18 **Gizartea.** Añanako Ur Partzuergoa "suntsitzen" ari dela salatu dute.
- 19 **Kirola.** 54 milioi euroko inbertsioa aurreikusi du Alaves-Baskonia taldeak.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Thierry Biscary musikariari elkarrizketa.
- 24 **Kultura.** San Prudencio Fundazioaren 50 urteko ibilbideari errepasoa.
- 26 **Kultura.** Gregory Porter arituko da Jazzaldian
- 27 **Nutrizioa.** 'Bota genetika'. Nagore Enciso.
- 28 **Gure bazterrak.** Albeiz, txirindularien habia.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

### Bultzatzaileak



# berria goiena

### Laguntzaileak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

### Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

### Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

### Komertziala

Erlantz Anda

### Inprenta

GERTU Inprimategia

### EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: [www.alea.eus/harpidetzak](http://www.alea.eus/harpidetzak)

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Edu Zelaieta eta Nagore Enciso.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

# Zortzi milurteko kronika osatu du genetikak

Iberiar penintsulan bizi izan ziren 271 lagunen analisi genetikoan abiatuta, Iñigo Olalde genetista gasteiztarrak 8.000 urteko kronologia osatu du. Duela 4.500 urte inguru izandako populazio mugimendu erraldoi baten zantzuak aurkitu ditu, garaiko euskal lurraldeetako populazioari ere bete-betean eragin ziona.

Testua: **Juanma Gallego**  
Argazkia: **Javier Fernandez**  
**Eraso**

Penintsula osoko laginekin batera, Arabako lau aztarnategitako laginak erabili dituzte ikerketan. Tartean, irudian ageri den El Sotillo trikuharrikoak.

**E**z da batere erraza gaur egungo irizpideen arabera iragana interpretatzea, eta hori ondo dakite historialariek zein arkeologoek. Ezein kontu aipatuta, berehala atera daiteke minduta sentitzen den norbait. Baita zientziaren alorrean ere. Iazko irailean *New Scientist* dibulgazio aldizkarian agertutako artikulu batek hautsak harrotu zituen, bereziki zenbait hedabidetan zabaldu ziren lezaburuak zirela eta.

Besteak beste, bertan proposatzen zen duela 4.500 urte inguru Erdialdeko Europatik iritsitako populazioak heldu zirela Iberiar penintsulara, eta, horren ondorioz, bertoko gizonezko guztiak desagertu zirela. *Inklusibo* hitza modan den honetan, kanpotik etorritako inbasio bati buruz hitz egitean tentuz ibili beharra dago, eta polemika handia sortu zen. Hainbat ikertzailek haien kezka agertu zuten informazioari emandako tratamendua zela eta, eta arrazakeria edo matxismo bezalako hitzak zabaldu ziren.

Artean, parekoen ebaluazioaren fasean zegoen zientzia-artikulu baten lehen emaitzak ziren horiek, baina orain argitaratu dute ikerketa *Science* aldizkarian. Bertan, iraganean bizi izan ziren 271 lagunen analisi genetikoan abiatuta, iberiar penintsularen azken 8.000 urteak laburbildu dituzte. Iberiar penintsularen historia argitzen saiatu dira ikertzaileak; tartean, Euskal Herrikoa.

Iñigo Olalde gasteiztarrak gidatu du lana. Carles Lalueza-Fox genetista ospetsuaren laborategian egin zuen tesia Olaldek, baina gero Harvardeko Unibertsitatean (AEB) ikertzeko aukera izan zuen. Bi urte eta erdi daramatza bertan, eta bertatik azaldu dizkio ALEARi horrenbeste polemika piztu zuen ikerketaren nondik norakoak.





Iñigo Olalde bi urte baino gehiago daramatza Harvardeko Unibertsitatean, genetika historikoa ikertzen. I. OLALDE

Erabili duten lagin estatistikoa oso esanguratsua izan dela azaldu du ikertzaileak. "Azken urteetan izugarri handitu dira teknika honen ahalmenak", dio Olalde. "2012an nire tesia egin nuenean, gizabanako bat besterik ez nuen ikertu. Oraingo honetan 271 lagun izan dira". Funtsean, edozein analisi genetikoren parekoa da egiten dutena, baina hainbat "trikimailu" erabili behar dituzte oso narriatuta dagoen DNA berreraiki ahal izateko. "Teknika berriei esker, lehen erabili ezin ziren laginak erabili ahal ditugu orain". Zortzi

milurteko tartea aztertu duten arren, bereziki azken 4.000 urteetan jarri dute arreta gehien, orain arte tarte hori ez zegoelako oso aztertuta genetikaren ikuspuntutik. Eta hor hasi dira gauzatzen lehen emaitzak, tartean, horrenbeste polemika piztu zuen gizonezkoen "ordezkapena".

### Istoria harrigarria

"Brontze aroaren hasieran gertatutakoa izan da esanguratsuena", nabarmendu du Olalde. "Kristo aurreko 2500-2000 tartean, Erdialdeko Europatik zetorren jendea iritsi zen penintsulara. Hor bi populazio bereizi ditugu: lokala eta etorri berriak. Batera ehorzten ziren, baina desberdinak ziren". Denboran aurrera jarraitu ahala, K.a. 2.000. urtetik aurrera aldaketa ikusi dute ikertzaileek. "Y kromosoma ia beti kanpotik datorrela ikusi dugu, eta garai horretatik lehenagoko gizonezkoek ez dute apenas oinordetzarik utzi".

Ordezkapen hori egiaztatu duten arren, horren haritik egin daitekeen irakurketa arras zaila da. Zientzia-artikuluaren tentuz ibili dira horri buruz idaztean. "Antzinako DNAk sexuan oinarritutako alborapena jazo zela dokumentatzen duen arren, ikerketa arkeologiko eta antropologikoak beharrezkoak dira hori sortu zuten prozesuak ulertzeko". Olalde ere tentuz mintzo da, Skype-ren bestaldetik. "Garai horretan, artikulua parekoen ebaluaziopean zegoenez, ezin izan genuen hitz egin, eta jendeak interpretaziorik harrigarriena hartu zuen agian. Baina hori aukera bat izan daiteke, noski. Kanpotik bereziki gizonezkoak iritsi zirela, bertoko gizonezkoak akabatu eta emakumeekin ezkondu zirenekoa, hain zuzen. Baina arkeologoek esaten digute ez dagoela ebidentzia argi nahikoa esateko garai horretan bortizkeria sistematikoa izan zela".

Bestelako aukerak mahai gainean jarri ditu adituak. "Agian estratifikazio sozial handia zegoen, eta bertako emakumezkoek lehenetsi zituzten estratifikazio horretako goiko postuetan zeuden kanpoko gizonezkoak". Kanpokoek ekarritako gaitz baten aukera planteatu dela azaldu du Olalde, baina logika handirik ez dio



ikusten, zaila baita gizonezkoei baino eragiten ez dien gaixotasun bat irudikatzea. Zer gertatu zen, bada? "Galdera horretarako DNAk ez du erantzunik", dio Olalde.

### Populazio aldaketak

Jose Antonio Mujika Alustiza kidearekin batera, EHUko arkeologo Javier Fernandez Eraso artikuluan parte hartu duten egileen artean dago. Euskal Herriari dagokionez, haiek bidali dituzte ikerketa honetarako beharrezkoak ziren laginak eta datazioak: 60 lagin, guztira. Kontu konplikatu dela aitortu du Fernandez Erasok. "Artikuluan babestu dute ia-ia populazio ordezkapen bat izan zela. Eta gure artean honek mesfidantza asko eragin dezake. Badakizu, euskaldunok uste dugu Paleolitotik gaudela hemen, baina hori ez da egia", azaldu du. Olalde berretsi du ideia hori: datu genetikoak eskutan, oro har, euskal populazioa Burdin Arotik aurrera desberdintzen da penintsulako gainerako populazioetatik, baina duela 4.500 urte estepatik etorritako uholde genetiko horrek euskal lurraldean ere eragina izan zuen. Populazio mugimendu horiekin batera nagusitu ziren indoeuropar hizkuntzak gurean errotu ez baziren ere, penintsulan izandako eragin genetiko berdina izan zen: gaur egungo Euskal Herriko gizonezkoen %80 inguruk du Europako estepetan abiatutako genealogia genetiko horren marka.

Datu arkeologikoen ez dute asko argitzen, baina zerbait garrantzitsua gertatu zela iradokitzen duten zantzuak badirela dio Fernandez Erasok. "Toloño mendilerroan, adibidez, duela 4.000 urte inguruko kronologietan, ehortzitakoak aurkitu ditugu, eta, horien gainean, Kalkolito garaiko korta bat. Argi dago zuk ez duzula jarriko korta bat zure familia ehortzeko erabil duzun hilobiaren gainean". Duela 4.300 urteko hildakoetan ere gezi puntak aurkitu dituztela azaldu du; badakite artzainak zirela, bruzelosia zutelako. "Badirudi jende desberdina izan zela; populazio aldaketaren bat izan zela, hain zuzen; baina gaur egungo datuen argira ezin dugu hori frogatu".

Oraindik argitu ezin izan duten beste misterio bat hizkuntzei dagokiena da. Ez da kontu hutsala: hizkuntzen banaketa kontuan hartu dute laginak aukeratzean. "Penintsula osoan gertaera horren eragin genetiko izan zen arren, horrekin batera etorri omen zen indoeuroparrak ez zituen hizkuntza guztiak ordezkatu", dio Olalde. Iberiarra desagertu bazen ere, eta erromatarrak Euskal Herrian izan ziren arren, euskara mantendu zen, antza, genetikoki edo kulturalki Burdin Arotik aurrera euskal lurraldea isolatuagoa gertatu zelako. Horren arrazoiak ulertzea da argitzeko dagoen gakoetako bat, baina, ohi bezala, ezagutzak argituko du bidea. Zuzentasun politikoak horretarako eskubidea ematen badu, noski. ■■■

## "AUKERA BAT IZAN DAITEKE: KANPOTIK GIZONEZKOAK IRITSI IZANA ETA BERTAKOAK AKABATU IZANA"

IÑIGO OLALDE

## "ARGI DAGO ZUK EZ ZENUKEELA JARRIKO KORTA BAT ZURE FAMILIA EHORTZITA DAGOEN TOKIAN"

JAVIER FERNANDEZ ERASO



**Parral**  
taberna

menu begetarianoa eta gosariak  
asteaz zehar - asteburuetan razioak  
asteartero aktuzio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4 TLF 945276433 GASTEIZ-ARABAI

# "Ofizio honetan, egoa puztuta bizi direnak dira arriskutsuenak"

## TXEMA BLASCO AKTOREA

Kontulari lanak utzi eta aktore lanetan hasia erabaki zuen Txema Blascok, 50 urte zituela. Hiru hamarkada beranduago, 'Segoviako ihesa', 'Tasio' edota 'Vacas' ezagunak dira parte hartu duen pelikula zerrenda amaigabeko batzuk; esku artean, zuzendari gazteen lehendabiziko gidoi ugari ditu zain.

Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkiak: **Erlantz Anda**.

**A**ktore ofizioari berandu heldu bazion ere, 50 bat urterekin, aurretik egin gabe utzitakoak berreskuratzeko lain egin duela pentsa dezake norbaitek. Urte hauetan, 81 pelikulatan parte hartu du, eta 165 laboritu bizkar gainean, hainbat antzezlan eta telebista seriarekin batera. Xehetasunik ez ahazteko, lan guztiak txukun zerrendatuta ekarri ditu elkarrizketara. Ofizioa pasioz bizi du Txema Blascok (Gasteiz, 1941), eta bide oparoa egiten jarraitu nahi du, proiektu berriekin eta etorriko direnen zain, bidean "arantza" bat edo beste kendu behar badu ere.

**Iaz hiru film luze eta labor bategan parte hartu zenuen. Ez duzu erritmorik galtzen...**

*El silencio de la ciudad blanca*, *Lo nunca visto* eta *Juanita* izan ziren azkeneko pelikulak iaz, eta Ruben Salazar zuzendariarekin beste bat izango dut aurten, urrian; pozik egin ditut harekin bi laboritu, eta gustora parte hartuko dut hurrengoan ere. Ahal dudana bitartean, behintzat, aktore izaten jarraitu nahi dut. Horrek asetzen nau, ez dakit besterik egiten, eta momentuz gidoiak ikasteko memoria ona daukat.

### Zer izan behar du proiektu batek erakartzeko?

Egia da ez dudala galbahe zorrotzik jartzen kar kar. Ez dakit ezetz esaten, eta are gutxiago gazteak badira proiektua aurkeztu didatenak. Euren nire ekarpena egitea gustatzen zait, eta euren gaitasunik ikastea. Gustora sentitzen naiz haiekin. Nahiz eta gidoi txarrak ere hartu ditudan, dena esan behar bada... Normalean, baina, gazteek irudimen handia dute eta gauza ederrak egiten dituzte; begira, bestela, Paul Urkijok *Errementari* aurretik egin dituen laborituak!

### Zer pertsonaiari diozu kariño handiena?

'Vacas' filmeko Manuel Irigibeli. Pertsonaia horrek ireki zidan nolabait aktore profesionala izateko bidea, 1992. urtean. Pelikula grabatu ostean, Elizondoko Baztan hotelean elkartu nintzen Julio Medem zuzendariarekin, eta bi galdera egin nizkion: "Nola egin dut pertsonaia?" eta "Uste duzu aktore izateko balio dudala?". Medemen "bedeinkapenarekin", kontulari lana utzi eta aktore izango nintzela erabaki nuen.

### Erabaki hori aurretik ez hartzeaz damutu zara?

Hartu ahal izan nuenean hartu nuen. Ez nuen beste aukerarik izan. Gasteizko Rioja kalean jaio nintzen, ama gazterik hil zen, aita inprimategi







'Audifono' film laburreko irudi bat. AUDIFONO

batean egiten zuen lan, eta hiru anai-arrebak ere laster hasi ginen lanean. Mandatari moduan hasi nintzen hamalau urterekin, gauez ikasketak egin bitartean: Ramiro de Maeztun batxilerra, eta Arte eta Lanbide eskolan mekanografia eta bestelako kontuak ikasi nituen. Egia esan, aitzak ez ninduen aktore izatera animatu eta berandu arte ez nuen profesio moduan izan, baina aktorearen harra barruan neraman aurretik.

#### **Pailazo moduan ere aritu zinen, ezta?**

Aitaren lehengusu batekin egin nuen lehen saioa, Ramon Jimenez Martinez *Zape* pailazoarekin. Berak eman zidan lehenengo sudur gorria, eta Txirinbil dantza elkarteko abarkak jantzita egin nuen lehena. Herritarrek txalo zaparradarekin hartu zuten saioa, eta bata bestearen atzetik egiten hasi ginen: 4.317 saio egin nituen. Laster,

hain zuzen, *Zape*-ri omenaldi bat egingo diogu, eta hori ere prestatzen nabil egun hauetan.

#### **Antzerkian ere lan ugari egin dituzu.**

Bai, eta egia da faltan botatzen dudala taula. Gasteizko lehendabiziko Antzerki Jaialdian, esaterako, Felix Gonzalez Petiteren eskutik parte hartu nuen, eta ondoren beste hainbat pertsonaia etorri ziren. Zarzuelaren bat ere zuzendu dut, eta pozik geratu dira emaitzarekin; baliabideak ez dituzunean irudimena izaten da giltza, eta aurretik afizionatu lan ugari egin dugunok badakigu zer den hori.

#### **Nola prestatzen dituzu pertsonaiak? Zeri erreparatzen diozu?**

Pertsonaia guztiak kalean daude. Denak. Hor bilatzen ditut nik pertsonaiak. Gogoan dut Juanma Bajo Ulloaren *Alas de mariposa* egin nuenean, Gasteiz Etorbidetik makuluarekin zebilen agure bat jarraitu nuela detektibeen pare; eskaparteetan geldialdiak eginez. Nola mugitzen zen ikusi, egiten zituen keinuak errepikatu... eta agure hori izan zen egin nuena. Jendea patxadaz begiratzea gustatzen zait pertsonaiak prestatzeko, eta, noski, zure ekarpena eginez. Errealitatetik edaten dugunarekin osatzen dira pertsonaiarik aberatsenak, ingurua behatu, albisteei adi jarraitu...

#### **Albiste politikoek kezkatzen zaituzte?**

Bai, noski. Zoratuta daude gure politikari hauek! Askotan etsigarria da egoera; elkarri mokoka igarotzen dute legealdia, benetako edukiei heldu gabe, eta horrek asko amorratzen nau. Elkarrizketa behar da, negoziazioa, eta horrek denek pixka bat galtzea esan nahi du, baina ez dago modurik; sokatiran ari dira. Atzera begiratzen dut maiz, eta ez dut esango garai hoberik izan denik, baina faltan botatzen ditudan gauzen artean "elkarlana" nabarmenduko nuke. Eta ez politikarien artean bakarrik, aktoreon artean ere lehen elkarlan handiagoa zegoela iruditzen zait; Gasteizen, sarean hainbat gauza egiten ziren, eta lehiakortasunak horrekin amaitu duela uste dut.



ERROTA  
HORTZ KLINIKA  
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1  
01012 VITORIA-GASTEIZ



**Lehiakortasun handia nabari duzu aktoreen artean?**  
Ofizio ederra da hau, baina arantzak ere baditu, noski. Gero eta lehiakorragoa da, eta bakoitzak bere aldera begiratzen du. Baina horrek baino gehiago kezkatzen nau beste gauza batek; egoa puztuta bizi direnak dira arriskutsuenak. Eta halako batzuk topatu ditut bidean; figura batzuekin lan egitea zaila da, jainkoak sentitzen direlako. Barkatu, baina hau bide luzeko ofizioa da, eta gogorra, lelokeria gutxiago beraz. Eta ez daukat lotsarik esateko horietako bat topatu nuela *Cuéntame* seriean; protagonismo zertxobait kendu dioten aktoreak kanporatzeaz arduratu da pertsona hori, tartean ni neu. Horiek dira bidean aurkitzen dituzun arantzak. Zortzi denboraldi izan ziren seriean, halere, Madrilen lanean, eta esperientzia ederra izan zen, besteak beste, Maria Galiana moduko aktoreekin lan egiteagatik.

**Zure semeak ere aktore izan omen nahi zuen, baina...**  
Bai, eta egia da nik ez nuela behar beste animatu kar kar. Lehenik eta behin, oinarri bat, ikasketa batzuk izatea aholkatu nion, eta gero nire babes erabatekoa izango zuen hartzen zuen erabakian, baina azkenik beste bide batetik jo zuen. Gorabehera handiko ofizioa da, eta desio behar duzu jarraitu ahal izateko, bide luzea baita. Bizitza diferenteak bizitzea ekarri dit lan honek, esperientzia oso aberatsak izatea, eta berriz aukeratu beharko banu, ez nuke zalantzarik. ■■■

**"JULIO MEDEMEK ETA 'VACAS' PELIKULAK IREKI ZIDATEN AKTORE PROFESIONAL IZATEKO BIDEA"**

**"AHAL DUDAN BITARTEAN AKTORE IZATEN JARRAITU NAHI DUT; HORREK ASETZEN NAU"**

**"NEGOZIAZIOA BEHAR DUTE POLITIKARIEK, ETA HORREK DENEK ZERBAIT GALTZEA ESAN NAHI DU"**

# Bereizten jakitea: teknika eta artea



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IDAZLEA ETA IRAKASLEA

**X**X. mendearen hasieran finkatu omen zen zazpi arteen sailkapena. 1911n, Canudo italiarrak zinemaren arte berria aldarrikatu zuen kanon klasikoan sartzeko. Denborak ongi erakutsi digunez, haren proposamenak arrakasta izan zuen eta, ondorioz, zazpigarren arteaz hitz egiten da gaur arazorik gabe. Geroago, beste aldarrikapen batzuk etorri dira: argazkigintza, komikigintza, bideo-jokoak... Hala, zenbait ahotsek zortzigarren artea, bederatzigarren artea edota hamargarren artea proposatu dituzte. Nolanahi ere, ez dirudi erabateko adostasunik dagoenik horien gainean.

Arteaz edo arteez ari garela, interesgarria da ikustea hitzaren jatorria nondik datorren. Izan ere, berbaren etimologiak latinera garamatza (*ars-artis*), baina, maiz aski gertatzen den bezala, latinezko hitzak grezierazko terminoa kontuan hartu omen zuen: gure "teknika"-rekin estuki lotua den *tekne*, hain zuzen ere. Ondoren, berba bakoitzak bere bidea egin du; gaur den egunean, nekez ikusten ditugu uztarri berean artea eta teknika.

Alabaina, hasieran bezalaxe, elkarloturik jarraitzen dute teknikak eta arteak. Ezagunak diren hainbat artistak behin baino gehiagotan nabarmendu duten eran, artelan bakoitzaren atzean ordu asko eta asko daude: diziiplina artistikoa gobernatzeko lasterbiderik ez dago, eta lan joriaren bidez hobetzen da teknika. Lana da, beraz, sekretu nagusia, eta haren bidez erakartzen dira uste erromantikoak maite dituen inspirazioa eta musak.

Ez dakit leku propiorik beharko lukeen hasierako sailkapenean, baina gero eta gehiago estimatzen dut bizitza galbahetik iragazteko trebetasuna. Bereizten jakiteaz ari naiz; horretarako behar diren teknikaz eta arteaz. Izan ere, gero eta okerrago daramat ezaugarri jakin bat duten pertsonak zaku bakarrean sartzearena. Alde horretatik, udaberria hauteskunder leher etorriko zaigula-eta, dagoeneko gogaitzen hasia naiz lelo zabaldu batekin: "politikari guztiak berdinak dira".

Gertu eduki galbahea; ongi presta esku-gogo. Hauteskunderen aurretik eta ondotik. Eta ez alderdiei begira bakarrik. ■

**GERO ETA OKERRAGO  
DARAMAT EZAUGARRI  
JAKIN BAT DUTENAK  
ZAKU BAKARREAN  
SARTZEARENA**



# TXIKI-TXEF

**MARTXOAK 22, OSTIRALA,  
18:00-20:00**

- Familian egiteko ekintza
- Euskaraz komunikatzeko gaitasuna
- 6-12 urte bitartean
- Falerina tabernan

## MENUA

- Tomate beteak
- Barazki lasañak
- Tortitak

UME+  
HELDU  
15€

2 UME+  
HELDU 1  
20€

IZENA EMATEKO: [DALBENIZ@GEUELKARTEA.EUS](mailto:DALBENIZ@GEUELKARTEA.EUS) / 688734941

## SAREAN

@ESTITXUUGARTE

## #Despopulazioa

**D**espopulazioa eta arazo honi nola aurre egin aztertu du ETB1eko Ur Handitan saioak azken astean. Nafarroako Beintza-Labaien eta Arabako Urizaharra aukeratu zituzten arazoaren inguruan hitz egiteko. Edorta Arana Urizaharreko okinarekin izan ziren, Ander Katalan bertako taxistarekin, Julen Diaz harrijasotzailearekin, eta herriko jende gaztearekin ere. Haien esanen harira hainbat hausnarketa irakurri ahal izan dira sare sozialetan. ■■■



**ETB**  
@euskaltelebista

@UrHanditan: #Urizaharrako gazteak, aisiari eta harremantzeko moduari buruz: "Kuadrillak anitzagoak dira, halaberharrez" #UrHanditan



**UNAI IRIGARAI**  
@unai\_auritz

"Herri txikitan denok dugu izena"  
#UrHanditan



**OLABALAND**  
@olaba72

Konponbiderik ez dagoela diote "despoblazio" hori saihesteko, baina argi dau batzuek ez dutela gure aldaketa handirik... horrek herri batzuen desagertzea ekarriko du. #UrHanditan



**BEÑAT MUGURUZA**  
@Benatmug

Dendariari herritarrek esaten omen zioten, "ze, ixtera zoazela", eta hark erantzun: "ez, zuek itxiko duzue". #UrHanditan



**JON ABRIL**  
@jonabril

Despopulazioa Euskal Herriko periferiaren arazo latza. Agendan ez dagoena, herri despopulatuetako herritarrei baino inporta ez zaiena, denon ardurakoa behar lukeena.  
#UrHanditan

**Inauterietan**  
Kanta! Dantza!  
Epa Txiki! Indi-Jones

Kontratazioak Ttipia 945243828

**bai**



## Bizitzak erdigunean jartzeko beharra

*Heteropatriarkatuari, planto!* egiteko deialdia egin zuten Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eta Martxoaren 8arekin batera milaka lagunek eman diote babesaldarrikapen horri. Egun horretan, herri txiki zein handietan gauzatu da "bizitzak erdigunean" jartzeko beharra. Goizean goizetik, hamaika ekitaldi izan dira lurraldean zehar, eta arratsaldean indar guztiak bildu dituzte Gasteizen, manifestazio jendetsu batean. **Argazkia: ALEA**



**Bidali zure argazkiak testu labur batekin: [erredakzioa@alea.eus](mailto:erredakzioa@alea.eus)**

# Argia, tunelaren amaieran

Gasteizko Ingeniaritza Eskolak Miñaoko parke teknologikoan abandonatuta dauden Marie Curie eraikina eta haizearen tunela formakuntzara eta ikerkuntzara bideratzeko proposamena aurkeztu du, Batzar Nagusietan.

## **E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE** GASTEIZ

48 milioi euroko galera publikoa ekarri duen Epsilon Euskadi egitasmoaren barruan, Miñaoko Parke Teknologikoan, haizearen tunel bat eraiki zuten 2009. urtean. Espainiako mota horretako azpiegitura komertzial bakarra zen, eta teknologia aurreratuena zuen. "Munduko onena", Joan Villadelprat Epsilon Euskadiko lehendakariaren arabera. Halere, hamar-kada bat igaro ostean, 17.000 metro koadroko pabiloi erraldoia abandonatuta dago, eta haizerik ez da sumatzen tunelean.

Epsilon Euskadiren porrotaren ondorioz, administrazioek beren gain hartu behar izan dute azpiegituraren mantenua eta enpresak utzitako zorra. Epeka, 2032. urtera arte, urtero, milioi bat euro ordaindu beharko dute parkeko jabeek: Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak eta Gasteizko Udalak.

Pabiloia eta haizearen tunela saltzeko saiakerak egon badira ere, ez dute arrakastarik izan, eta denborak aurrera egin ahala puntako teknologia zaharkitzen ari da. Bada, Gasteizko Ingeniaritza Eskolak irtenbide posible bat proposatu du, hain zuzen unibertsitateak hartzea eraikinaren eta bertan dagoen haizearen tunelaren kudeaketa, eta lan zientifikora, ikerkuntzara eta prestakuntzara bideratzea.

Zintotasunez hitz egin du Xabier Sancho eskolako zuzendariak Arabako Batzar Nagusietan aur-



Haizearen tunela berriro martxan jartzeko egitasmoa aurkeztu du Ingeniaritza Eskolak. [PARKE.EUS](#)

keztu duen proposamenaren inguruan: "Epe motz edo ertain batean ez dugu ekonomikoki bideragarri ikusten haizearen tunela. Izan ere, hala balitz, enpresen eskaintzak egongo ziren, eta ez da hala izan". Bideragarritasuna, beraz, ezagutzaren aldetik ikusten dute Gasteizko Ingeniaritza Eskolako arduradunek. "Unibertsitateak ez du dirurik, baina ezagutza bai, eta eraikinaren erabileraren bitartez, gizartearen eskuetan jarri ahal dugu ezagutza

hori". Hala esan du Unai Fernandez Ingeniaritza Nuklearreko irakasleak agerraldian.

## **Bi milioi euroko inbertsioa**

Unibertsitatearen proposamenaren arabera, lau urte eta 2,1 milioi euroko inbertsioa beharko lirateke Miñaoko Marie Curie pabiloia behar berrietara egokitzeko eta haizearen tunela berriro martxan jartzeko. Bertan eskainiko litza-teke unibertsitateko maila guztietako –graduak, masterrak,



doktoretzak– prestakuntza baita enpresa pribatuek eta erakundeek eskatzen dituzten ikastaro espezifikokoak ere. "Eraikina ezin hobeto egokitzen da Eskolaren beharretara: eskolak emateko gelak daude, laborategiak...; gainera, gure lana duintasunez egiteko



aukera izango genuke eta haizearen tunelari esker, proiektu berrien buru izateko gai izan gaitezke. Eskola mapan jartzeko balio lezake". Ekaitz Zulueta Sistemen Ingeniaritzako irakasleak azaldu duenez, unibertsitatearen eta parkeko enpresen arteko kolaborazioa sustatzeko ere lagungarri litzateke Ingeniaritza Eskola Miñaon kokatzea.

Bestalde, haizearen tunela berriz martxan jartzeak lan zientifikoa eta ikerketa ildo berriak zabaltze-

ko balioko duela uste du Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendaritzak. Izan ere, gainera, industria sektoreko enpresei eta erakundeek zerbitzu berriak eskaini ahal dira: "Gure lurraldean pisu handia duen automozioarekin lotutako enpresek erabili ahalko dute, baita energia berriztagarrien arlokoak ere, aeronautikakoak, ingeniariak zibilekoak...". Unibertsitateak dagoeneko hainbat kolaborazio esparru zabalik ditu herrialdeko eta nazioarteko konpainiekin, eta egitasmoak aurrera eginez gero, interesatuak egon daitezke.

Dena den, Ingeniaritza Eskolako arduradunek ez dute uste haizearen tunela erabiltzeak errentagarritasun ekonomikoa izan dezakeela epe laburrean, baina "dirua atera ahal bazaio aterako zaio".

#### **Finantzaketa lortzeko aukera**

Hortaz, eraikinean beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko, finantzaketa publikoa planteatu du Ingeniaritza Eskolako taldeak, akordio-markoak eginez Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako Estatuko administrazioekin, eta ahal den neurrian Europatik etor daitezkeen diru-laguntzak baliatuz, nahiz eta azken hauek lortzeko zailtasun handiak daukela aitortu duten.

Gasteizko Ingeniaritza Eskolako ekipoak hilabete luzeak eman ditu Miñaoko Parke Teknologikoaren haizearen tunela berriz martxan jartzeko proiektua diseinatzen. Zuzendariak azaldu duenez, iragan urteko maiatzean Miñaoko arduradunak harremanetan jarri ziren Eskolarekin, eta ordutik hainbat bilkura izan dituzte. Uztaillean aurkeztu zuen proposamena unibertsitateak, eta orduan atzeman zuten parkeko arduradunen kezka, unibertsitateak

## **Diruaren hotsa**

Gasteizko Merkataritzako lehen epaitegiak Epsilon Euskadi automozio enpresa likidatzea erabaki zuen 2012ko apirilean, diru sarrerarik ez zuelako eta zorrak itota zegoelako. Miñaoko egoitza eta haizearen tunela finantzatzeko hamasei milioi euroko mailegua erdibana eman zioten Epsiloni Vital Kutxak eta Kutxak. Miñaoko parkeko zerbitzu juridikoek aurkako iritzia azaldu arren, Parke Teknologikoak bermea eman zion Epsiloni. Enpresak dirua itzuli ez zuenez, hiru bazkideak pagatzen ari dira zorra, diru publikoarekin.

## **"HAIZEAREN TUNELARI ESKER, ASMO BERRIEN BURU IZATEKO GAI IZAN GAITEZKE"**

EKAITZ ZULUETA, I.ESKOLAKO IRAKASLEA

ezingo zuelako finantzaketaren zati bat bera ere bere gain hartu. "Parkearen aldetik kezka dago, sortzen ari diren gastuei aurre egiteko diru sarrerak lortu behar dituztelako".

Orduz geroztik, EHUren eta Eusko Jaurlaritzaren zein Arabako Diputazioarekin harremanak izan dira, baina Gasteizko Ingeniaritza Eskolak ez du erantzunik jaso.

# Haserre dago Mendi Haran

Diputazioa Añanako Ur Partzuergoa "suntsitzen" ari dela salatu dute; Araban sortu berri duen partzuergoa bultzatzeko "legea urratzea, mehatxuak egitea eta dirua xahutzea" leporatu diote.

## **ESTITXU UGARTE** GASTEIZ

"Mando bat portzelana denda batean bezala dabil Arabako Diputazioa ur partzuergo berria osatzen". Añanako Mendi Haran Ur Partzuergoko lehendakari Jose Mari Martiodaren salaketa da. Martiodaren esanetan, eskualde mailako ur partzuergoa "suntsitzen" ari da Aldundia, pasa den urtarilean sortu zuen Araba mailakoa bultzatzeko. Mendi Haraneko arduradunak herrialdeko partzuergo guztiek tratu ekonomiko eta

tekniko bera edukitzea eskatu du, eta "behingoz gelditzea egiten ari diren ezkutuko mehatxuak".

2002. urtean sortu zuten Erriberagoitiko Udalak eta inguruko hamaika bat batzar administra-

## **MENDI HARANEK AÑANAKO 23 HERRIREN UR HORNIKUNTZA KUDEATZEN DU**

tibok Mendi Haran Ur Partzuergoa, eta gerora sartu ziren Erriberabeitiko Udala, Ribabellosa eta beste kontzeju batzuk. Guztira, gaur egun, Añanako 23 herriren ur hornikuntza kudeatzen dute.

Bazkideen asanbladan kontzejuetako eta udaletako ordezkarietz gainera, Diputazioaren bi ordezkari ere badaude. "Hamasei urteotan kalitateko zerbitzua eta ura bezain gardena den kudeaketa eskaini ditugu", azpimarratu du Martiodak.

## **"Zintzotasun falta"**

Haatik, Diputazioak lurralde mailako ur partzuergo bakarra sortzeko asmoa martxan jarri zuenetik, arazoak dituzte Añanan. "Erakundeen arteko zintzotasun falta" leporatu dio Mendi Haraneko lehendakariak Aldundiari, eta Añanako partzuergoaren bazkide diren herriak Arabako partzuergora erakartzen saiatzen ari dela kritikatu du: "Aldundiak partzuergo berri bat eraiki nahi du Mendi Haranen hondarren gainean, eta ez gaude prest". Horretarako, legea urratzen ari dela esan du, eta nabarmendu du hainbat udalek eta batzar administratibok ez dutela baja eman Mendi Haranen partzuergo berrian sartu aurretik, eta modu horretan erakundearen estatutuak urratzen ari direla.

Bestalde, ur partzuergo berria osatzeko "diru publikoa xahutzea" leporatu dio Aldundiari Mendi Haranek; adibide bezala, Martiodak esan du 500.000 euro jarri dituela Diputazioak Tropegarain Ur Partzuergoaren estatutuak aldatzeko eta Arabakoan sartzeko. Gogoratu du, aldi berean, Arabako ur partzuergo gehienek uko egin diotela Diputazioaren proposamenari.



Mendi Haran partzuergoko kideak, pasa den astean egindako agerraldian. MENDI HARAN

# 75 urtez nahi du Alavesek zelaia

Mendizorrotzeko zelaian zortzi mila ikusle gehiago jasotzeko, 54 milioi euroko inbertsioa aurreikusi du Alaves-Baskonia taldeak; gainera, aurkeztu duen proposamenean 75 urteko lagapena eskatu dio Udalari.

**E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE** GASTEIZ Alaves-Baskonia taldeak Mendizorrotzeko zelaia handitzeko obra erraldoia egin nahi du, 2022. urterako. Maiatzean eskatu dizkio Gasteizko Udalari obrak hasteko lizentziak. Proiektua hainbat zaititan banatu dute, eta egungo 19.000 ikusletik 27.070era pasatzeko 54 milioi euroko inbertsioa aurreikusi du taldeak. Klubak 32 milioi euro jarriko lituzke, inbertsioaren %60 inguru; Gasteizko Udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean gainerako 22 milioi euroak jarri beharko lituzkete.

Egin behar duen inbertsioa konpentsatzeko, Alaves-Baskonia taldeak 75 urtez Mendizorrotzeko lagapena eskatu du, alegia 2094. urtera arte. Modu horretan, birmoldaketan inbertitutako dirua berreskuratu ahalko duela uste du. Erakunde publikoen artean antzeko zenbatekoak finantzatu beharko dituzte, obrak aurrera egin dezan. Udala da Mendizorrotza zelaiaren jabea eta zortzi milioi euro gastatuko lituzke; Arabako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, zazpi milioi euro bideratuko lituzkete bakoi-tzak Mendizorrotza handitzeko.

Finantzaketari aurre egiteko, Gasteizko kluba inguruko beste futbol-taldeen antzera jokatzeko aukera aztertzen ari da, alegia

laguntzaile bat bilatzea, eta zelaiari izena aldatu eta babeslearen izenean jartzea. Hautsak harrotu ditu Alaves-Baskoniaren asmo horrek kirolzaleen eta hainbat udal talde politikoren artean.

## Kritikak oposizioaren aldetik

Izan ere, Irabazi taldeko eledun Oscar Fernandezek azken udalbatzan esan zuen izenaren aldaketa "iraina" dela "hiriarentzat, futbolzaleentzat eta Udalarentzat". Zelaia birmoldatu behar dela esan du taldeak, baina proiektua gehiegizkoa iruditzen zaio, eta "interes orokorraren kontrako baldintzak" planteatu dituela Alavesek.

Balizko izenaren aldaketaz gainera, Podemosek ere ez ditu begi onez ikusi Alavesen proposame-

nean jasotzen diren baldintzak. Milioietako inbertsioaren beharra jarri du auzian udal taldeak, eta herrialdean beste lehentasun batzuk daudela azpimarratu du.

EH Bilduk eta PPK Mendizorrotza handitzeko beharra ikusten dute, baina ez daude ados erakunde bakoitzaren ekarpen ekonomikoarekin, eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik babes ekonomiko handiagoa eskatu dute.

Mendizorrotzeko futbol-zelaiak 19.000 ikusle inguru hartu zitzaizke; 1924an egin zen udal instalazioa, eta zenbait eraberritze-lan egin izan dira bertan, azkeneko garrantzitsuena 1997 eta 2000 urteen artean. 2023ra arte, Alavesek instalazioen lagapen eskusiboa dauka. 2018ko ekainean Jaurlaritzak, Aldundiak eta Udalak jardun-protokolo bat sinatu zuten estadioa eraberritu eta handitzeko lanak finantzatzeko.

## 54 MILIOI EUROKO INBERTSIOA AURREIKUSI DUTE MENDIZORROTZA HANDITZEKO

## Confecciones Pinedo, S.L.

*Euskal Jantziak*

San Antonio, 11  
Heraclio Fournier, 15  
GASTEIZ



[www.confecconespinedo.com](http://www.confecconespinedo.com)

## ESANAK



**SUSANA MENDEZ LERTXUNDI**  
NAIZEN ELKARTEKO KIDEA

**"Semeak esan zidanean transexualitate prozesua abiatu nahi zuela, astebetaz ukatu nuen"**



**ANDONI LANDA AROZENA**  
OIONGO IKA EUSKALTEGIKO IRAKASLEA

**"Pena ematen dit euskara bereizteko erabiltzeak, eta ez biltzeko"**



**BINGEN ZUPIRIA**  
KULTURA SAILBURUA

**"Ikus-entzunezko produkzio arabarririk ez dago finantzazioagatik aurrera egin ez duena"**

## ZENBAKITAN

### Euroak

**Argantzungo ospitale** zaharraren birgaitzeak aurrera egingo du.

Arabako eta Burgosko diputazioek San Juan Evangelista ospitalea zen horretan gizarte-zentro berri bat egokitzeko hirugarren eta laugarren zatiko obrak finantzatuko dituzte; Argantzungo Udalak egin beharreko lanen zati bat ere bere gain hartuko du. Eraikinaren fatxadaren paretak konpontzeko 83.822 euroko inbertsioa aurreikusi dute; eta barruko egitura behar berrietara egokitzeko, berriz, 138.540 euroko partida onartu dute. Udalak liburutegia, adinekoentzako zentro bat eta Donejakuera doazen erromesentzat aterpe bat jarri nahi ditu bertan.

**222.362**

**4.012**

### Plazak

**Udalekuak 2019** programaren aurkezpena egin dute egunotan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioek. Aurtengo kanpaina, uztailaren 1etik 29ra bitartean izango da Euskal Autonomia Erkidegoko hiru herrialdeetan eta Nafarroan dauden 16 instalazioetan. Denera, 4.012 plaza eskainiko dira, 7 eta 13 urte bitarteko neska-mutikoentzako. Araban, apirilaren 2tik 10era eman ahalko da horietarako izena; zozketa apirilaren 15ean egingo dute.

**2.500**

### Metroak

**Salburuko tranbiaren** proiektuaren ibilbidean aldaketak daude, Salburua Burdinbide auzo elkarteak azken geralekua aldatzeko proposamena onartu egin du eta Jaurlaritzak. Hala, Juan Carlos I. Etorbidearen eta Salburuko Bulebarraren arteko bidegurutzean zegoen linea amaierako geralekua erdirago jarriko dute, bidaiari gehiago jasotzeko asmoz. Aurreikusitako behin betiko bideak, guztira, 2.500 metro inguruko luzera izango du.

## Zabalik daude berriro ere Artziniega Museoko ateak

Hilaren 10ean ireki zuten Artziniega Museoa, abendutik itxita egon ostean; Artadi enpresari esleitu diote gida zerbitzuaren kudeaketa. Talde politikoez eta Artea etnografia elkarteak positiboki baloratu dute akordioa; azken horrek, dena dela, ohartarazi du soluzioa behin behinekoa dela, akordioak museoa 2019an irekitzea bermatzen duelako bakarrik.



Artadiri esleitu diote museoko gida zerbitzuaren kudeaketa. ALAVA TURISMO

## Lopez de Abetxukoren harrera ekitaldia ikertzen ari dira

Ramon Lopez de Abetxukoren harrera ekitaldian ustezko terrorismoaren goratzea eta biktimen umiliazioa ikertzen ari da Auzitegi Nazionala. Iazko uztailearen 5ean, espetxean 31 urte egin ondoren, Gasteizen egin zioten ekitaldiaren harira, Madrilgo epaitegiak deklaratzeraz deitu ditu Ana Velasco eta Eduardo Lazaro ETaren biktimak, kaltetu gisa.

## Elgorriaren protokoloa aktibatu dute Gasteizen kasu bat agertu ostean

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak kontaktu potentzialak detektatzeko protokoloa jarri du abian, Gasteizen elgorri-kasu bat egiaztatu ostean. Kutsatutakoa 28 urteko emakumea da, eta lehen sintomekin martxoaren 2an hasi zen; kasua, baina, ez zen hilaren 8ra arte jakin. Kutsatzeak saihesteko isolamenduneurriak ezarri dituzte.

## Kantabria Mendilerroa toponimoaren aldeko plataforma sortu dute

Toloño Mendilerroa toponimo ofiziala dena baztertzea eta horren ordez, Kantabriako Mendilerroa berreskuratzea du helburu Arabako Errioxako, Mendialdeko eta Errioxako hainbat udalez eta 14 elkartzek osatuta dagoen plataforma berriak. Askotariko ekintzak egitea dute aurreikusita; tartean, dagoeneko martxan dagoen sinadura bilketa.

## Maiatzaren 25ean izango da Mendialdea Music Festivala

Martxan da Mendialdea Music Festival jaialdiaren hirugarren edizioa; aurten, maiatzaren 25ean izango da. Antolatzaileek dagoeneko ezagutarazi dituzte Maeztun egongo diren lehen musika taldeen izenak: batetik, laster lan berria kaleratuko duen Agoraphobia laukote galiziarra dago; eta bestetik, Moni Garage talde gasteiztarra.



Agoraphobia taldea izango da aurtengo jaialdian. AGORAPHOBIA

# "Kolore desberdineko kontzertua eskaini nahi dugu"

THIERRY BISCARY MUSIKARIA

---

## IÑAKI LAZKANO

---

Manez eta Kobreak taldeak kontzertua eskainiko du igandean, hilaren 17an, Oihaneder Euskararen Etxean. Thierry Biscary abeslaria dago taldearen atzean, eta aste honetan Alea FM saioan izan da. Biscaryren izen artistikoa da Manez. Hainbat taldeetan (Hegalka, Kokin, Kalakan...) aritu ondoren, bere kantuak aurkezten ditu Kobreak metalezko tresnen taldearekin. Ahaide, auzokide, adiskide edo ezagun batzuen bizi parteak kontatzen ditu Manez eta Kobreak diskoan. Lurrarekin eta komunitatearekin duen harremana aipatzen dute kantuek. **Zein da Manez eta Kobreak proiektu musikalaren funtsa?** Duela hogeitau urte hasi nintzen kantatzen, eta lehen aldia da bakarkako lan bat egiten dudala, lan intimo bat; kontatzen ditudanak Nafarroa Behereko kontakizun batzuk dira, bizi izan ditudanak eta kontatu zizkidatenak. Euskal Herriko bertsoari niretzako bertsoak osatzeko eskatu diet, eta nik musikak eta moldaketak

egin ditut. Ahotsak eta kobreak uztartzea, alegia metalezko musika-tresnekin uztartzea, da proposamena.

### **Nolakoa izan da elkarlana?**

Ni melodia zehatz batekin joan naiz haiengana, eta bertso bat osatzeko eskatu diet, dakiten moduan. Batzuetan gidoi bat emanez, beste batzuetan argazki bat abiapuntu bezala hartuta... Testuinguru oso bat eman diet, kontakizuna.

### **Eta, bitartean, Kalakan taldearen proiektua, geldiuene batean dago?**

Taldea 2009an sortu nuen, eta 2016ko bukaeran nik taldea utzi nuen, baina taldeak jarraitzen du nire ordezkorekin; geroztik, aita bilakatu naiz eta bizitza aldatu zait pixka bat. Proiektu xumeago bat hasi nahi nuen, eta Euskal Herrian gehiago pentsatu.

### **Manez eta Kobreak taldea sortu duzu eta beste hainbat gauza dituzu ere esku artean; Kalapita proiektuaren atzean zaude...**

Esperientzia bat lortu dut hogeitau urte hauetan, eta saiatzen naiz esperientzia hori baloratzen eta partekatzen, gazte batzuk bultzatzen, aholkatzen Iparraldetik Hegoaldera gauza batzuk

ekartzea eskatu didate, eta sare bat osatzea; eta ari naiz poliki-poliki musika eta dantza garaikidearen sare bat osatzen Hegoaldean. Ikastaroak ere egiten ditut, kantuaren inguruan, interpretazioaren inguruan... Gauza desberdinak eskaintzen saiatzen naiz, baina beti kantuaren inguruan, ni abeslaria naiz eta.

### **Zeintzuk dira zurekin Manez eta Kobreak taldean doazenak?**

Kobreak taldean daude Iparraldeko eta Hegoaldeko musikariak; adibidez, Iruñetik Mintxo Garaikoetxea dago, bonbardinotza jotzen duena; Bixente Etxegarai, tronpeta; Vianney Desplantes, bonbardinotza jotzen duena; Ana Telletxea eta Maider Martineu. Erronka handiena da behar den jendea biltzea. Abesten ahal zuten eta baita kobreak jotzen zituzten musikariak nahi nituen; bestela hamabost izango ginatke eszenatokian. Zazpi gara, ordea, eta egiten ahal dugu momentu batean otxote bat bezala, abesbatza txiki bat, eta fanfarre bat ere aldi berean. Bi punta horietan jotzen dugu: gauza alaiak fanfarrearekin, eta



Thierry Biscary abeslaria. MANEZ ETA KOBREAK

## "GAUZA ALAIK FANFARREAREKIN JOTZEN DITUGU ETA AHOTSAREKIN SAKONAGOAK"

ahotsarekin gauza melankolikoagoak, sakonagoak; emanaldietan pertsonaia bakoitzak bere tokia hartzen du. **Durangoko azokan eskatu zizuten hainbatek Gasteizera etortzeko.** Oso bitxia izan zen. Gasteiztar asko pasa ziren Durangotik, eta askok galdetzen ziguten ea noiz

## "HOGEI URTE HAUETAN LORTUTAKO ESPERIENTZIA PARTEKATZEN SAIAITZEN NAIZ"

pasatuko ginen Gasteiztik. Gipuzkoar batek eman zidan Oihanederren berri, ez nuen ezagutzen tokia, eta saiatu nintzen harremanetan jartzen, eta azkenik gauzatu da kontzertua, eta oso pozik nago; Araban izango den lehen kontzertua da.

**Diskoan oso kantu desberdinak bildu dituzu, kolore anitzekoak.** Hori zen nire asmoa. Hori ikasidut azken urteetan, eta Kalakanekin ere hori ikasidugenuen: zuzenekoetan saiatu behar garela jendeari gauza desberdinak eskaintzen, beti koherentzia bat mantenduz. Niri ere entzule bezala gustatzen zait gauza desberdinak entzutea, momentu batean pertsona bakar bat kantatzen, gero bat-batean sei kantari, edo fanfarre oso bat eta kantaria, eta gai desberdinak ere entzutea. ■■■

**MARTXOAK 16**  
Larunbata 17:30  
**DULANTZI,**  
Micaela Portilla Kultur Etxeko aretoan  
**Gai-emailea:**  
Aintzane Irazusta Arzallus

Iñaki Vilaspine Simon	Oihane Perena Perez de Mendiola	Ara Arribieta Barredo	Paula Amilburu Izargorai	Rikardo Gonzalez de Durana Alzola	Beñat Gorain Mendizabal

# Ekonomatoen garaira buelta

Arabar askori oroitzapenak ekarriko dizkion erakusketa dago asteotan ikusgai Gasteizko ur biltegian: San Prudentzio Fundazioaren 50 urteko ibilbideari errepasoa egiten diona argazki, kartel eta objektuen bidez.

## MIRIAN BITERI GASTEIZ

San Prudentzio Fundazioaren 50. urteurrenaren ospakizunen barruan, *50 urte Arabako industriaren eskutik* erakusketa egongo da ikusgai apirilaren 21era arte, Montehermoso Kulturuneko Ur Biltegian. Arabako industriaren bilakaera, enpresa elkartuak eta horiek osatzen zituzten langileak erakusten ditu erakusketak, argazki, prentsa artikulua, kartel eta hainbat objektuen bidez.

1950. hamarkadaren amaieran hasten da ibilaldia, garai hartako Gasteiz hiriararen aurkezpenarekin, hamarkada batean biztanle kopurua bikoiztu zuenarekin. Garai hartan, langile familia batek aurrekontuaren %60a janarian gastatzen zuen, eta egoera hori arintzeko ekonomatoak sortzen hasi ziren: enpresa edo talde jakin batzuetako langileei produktuak merkeago eskaintzen zizkieten saltokiak.

Aurretik ere bazeuden antzeko erakundeak funtzionarioentzat, baina 1958. urtean lege-dekretu batek 500 langiletik gorako enpresak laneko ekonomato bat sortzera behartu zituen. Ajuria enpresak ordurako bazuen bere ekonomatoa zabalik, Adriano VI. kalean; eta Imosak, DKW furgoneta ezagunen fabrikatzaileak, 1961an zabaldu zuen berea. Lehenengo San Prudentzio ekonomatoa,

Fundazioaren hazia, 1969ko maiatzaren 24an inauguratu zuten, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean. Baina, sortutako guztietatik, San Prudentzio izeneko ia izan zen ibilbiderik luzeena izan zuena. 30 enpresez osatuta zegoen; tartean, BH, Esmaltaciones San Ignacio, Heraclio Fournier, Fabril Mecanica Alavesa, Telefonica edo La Previsora.

### Olio litroa, 4,5 pezeta merkeago

Bertan erositako, familiek aurreztu egiten zuten; adibidez, 1973an, olio litroa 45,5 pezetatan bazegoen, bertan erosten zutenek 41 pezetatan eramaten zuten.

1970 eta 1980. hamarkadetan etengabean hasi zen San Prudentzio; 7.000 titularrekin hasi bazen ere, denborarekin bestelako enpresa, zerbitzu eta administrazio langileak sartu ziren, eta 1994an, 40.000 onuradun eta 300 langiletik gora izatera heldu zen.

Ordurako erakundeak bazuen eraldatzeko erabakia hartuta, merkataritza-estrategiak eta bestelakoak behartuta. 1996an, produktuak saltzen uzteari ekin zion, zerbitzuak eskaintzeko; Eroskiren esku geratu ziren merkataritza-banaketarako jarduerak eta langileak. Gizarte prestazioen eremura egin zuen orduan salto fundazioak eta horretan dihardu egun ere. Erakusketak mende erdi horren errepasoa egiten du. ■



Kas enpresako garai bateko botilak.



DKW furgoneta ospetsuak.



Emakume langileak.





Lehen hamarkadetan, ekonomatoak izan ziren fundazioaren oinarria. M.B.



Galerías Preciados zenaren irekiera iragarkia.



Asko dira ur biltegiara joaten ari direnak; bereziki, adineko jendea.

# Gregory Porter, Jazzaldian

Musika jaialdiari bide berriak emateko asmoa azaldu du Gasteizko Jazzaldiko zuzendaritza talde berriak. Uztailaren 16tik 20ra egingo izango da aurtengo edizioa Mendizorrotzan eta Principal antzokian.

## MIKEL LIZARRALDE/ BERRIA GASTEIZ

Gasteizko Jazzaldiak bere burua berrasmatzeko eta orain arte jorratu gabeko bideak zapaltzeko asmoa dauka. Hala azaldu dute Alberto Ibarondo zuzendariak eta Iñigo Zarate presidentek. Iazko jaialdiaren ostean, Iñaki Añua urteetan Jazzaldiaren zuzendaria izan denak erretiroa hartu zuen, eta haren lekua hartu du Ibarondok zuzentzen duen taldeak.

Norabide aldaketa horren lekuko dira aurtengo ekitaldirako zuzendaritza taldeak iragarri dituen lehen izenak, horietako asko orain arte Gasteizko Jazzaldian inoiz aritu gabeak. Horien artean Gregory Porter (Sacramento, AEB, 1971) kantariaren izena nabarmentzen da. Estatubatuar croonerra behin baino

gehiagotan izan da Donostiako Jazzaldian, baina aurreneko aldia izango du Gasteizen. Ibarondok azaldu duenez, Nat King Coleren kantutegian oinarritutako kontzertua egingo du Porterrek, baina urrian kaleratzekoa den disko berriko piezak ere interpretatuko ditu. Bi Grammy sari ere irabaziak ditu Porterrek, eta jazz munduan gehien laudatuetariko abeslari bilakatu da denbora laburrean.

### Regina Carter

Porter uztailaren 18an ariko da Mendizorrotzan, eta haren aurretik Regina Carter biolinistak (Detroit, AEB, 1966) joko du leku berean. Carterrek hainbat musikarekin egin du lan bere ibilbidean (Cassandra Wilson, Joe Jackson, Kenny Barron), baina, batik bat, bakarlari gisa egin duen

ibilbideagatik nabarmendu da. Haren azkeneko diskoa Ella: Accentuate the Positive (2017) da, zeinean Ella Fitzgerald jazz kantariak landu zuen kantutegia landu zuen Carterrek.

Jazzaldia uztailaren 16an hasiko da ohiko gospel kontzertuarekin, eta, aurten, genero horretako talderik esanguratsuenetakoa izango da Mendizorrotzan: Golden Gate Quartet. Hurrengo egunean, berriz, eta Gasteizko Jazzaldiak berak bultzatuta, Marco Mezquida pianista kataluniarraren inguruan sortutako MAP hirukotea eta Gasteizko Udal Banda elkarrekin ariko dira. Kontzertuaren bigarren partean, berriz, Danilo Perezek, Avishai Cohenek, Larry Grenadierrek, Chris Potterrek eta Jonathan Blakek osatutako boskoteak joko du.

Mendizorrotza izango da aurten ere Jazzaldiaren epizentroa, baina Principal antzokian ere egingo dituzte kontzertuak. Benny Golson saxofoi jotzaile betanoari (Filadelfia, AEB, 1929) egokituko zaio aurtengo programazioa hastea, eta jarraian oholtza berean ariko dira, uztailaren 20ra bitartean, Marco Mezquida, Nubya Garcia, Marta Sanchez Quintet, Iñigo Ruiz de Gordejuela eta Ambrose Akinmusire & Kool A.D. ■■■



Uztailaren 18an ariko da Gregory Porter. G. PORTER

# Bota genetika

NUTRIZIOA



**NAGORE ENCISO**

NUTRIZIONISTA

**G**uztiok daukagu gogoan atsegin ez dugun jakirenbat. Normalean zapore mingotsa edo fuerteak dituzten jakiek sortzen digute errefusa, baina zergatik ote?

Ikertzaileek luze eman dute arrazoiak bilatzen; arrazoi sozialekin batera, biologikoei, ebolutiboei eta genetikoei ere erreparatu diete.

Biologikoei dagokienez, pertsonen garapenari so egin behar diogula esan dute.

Umeak garenean gure gustuak oraindik garatu gabe daudela, apetatsuagoak eta mizkinagoak garela, eta ondorioz, ez garela edozein jaki jateko prest ageri. Zahartzaroan, berriz, zaporeen pertzepzioa eraldatu egiten zaigula, eta lehen onartzen genituen zaporeak ez onartzera irits gaitezkeela, eta alderantziz.

Genetikoak eta ebolutiboak eskutik datozela ere aipatu dute, bata bestearekin zuzenki erlazionaturik daudelako. Hainbat ikerketen ondorioa da zaporeen pertzepzioak genetikoki emanda etortzen zaizkigula. Betiere genetikarien arabera, hiru motako pertsonak daudela ikusi dute: dastamen-papilak oso garatuak dituztenak, eta ondorioz zaporeei oso sentikorrak direnak; erdibideko sentikortasunak dituztenak; eta dastabotoi ez hain garatuak dituztenak. Oso sentikorrak direnak, oro har, ez dute zapore mingotsa onartzen, eta



PIXABAY

zailtasun handiagoak izaten dituzte, adibidez, brokolia edo bruzelazak bezalako jakiak onartzeko. Besteen kasuan, berriz, sentikortasun txikiagoa dutenez, edozein jaki onartzeko errazago izango dute.

Baina badakigu genetika eta biologia ez direla dena. "Emanda" etortzen zaigun hori ez duela zertan horrela izan behar, gizakiok genetikak eta biologiak diona baino askoz ere gehiago garelako. Zaporeei dagokionez ere, emanda etorri zaigun hori ez du horrela izan behar. Kulturalki jasotzen dugunak eta heziketan ematen digutenak talka handia izaten dute gure elikadura gustuetan.

Esate baterako, brokolia bezalako jaki bat, txikitatik mahai gainean ikusi izan badugu eta ondo prestatua izan bada, sentikortasun horri buelta eman eta zapore horri potentzia osoa ateratzera irits gaitezke.

Jatera behartu gabe, aukera guztiak ematean dago koska. Horren ondorio agerikoa garagardoa edo ardoa ditugu; gogoratzen al duzu lehen aldiz norbaitek frogatzera eman zizunean? Hauek baino mingotsagorik... eta orain, zein gustura edaten ditugun bata bestearen atzetik! Beraz, ez dago aitzakiarik: bota genetika eta ekarri ardoa! ■■■

# Txirrindularien habia

GURE BAZTERRAK



## Albeiz

**Kuadrilla:** Lautada.

**Udalerrria:** Asparrena.

**Biztanleak:** 70 (2018ko Eustaten datuen arabera).

**Bitxikeria:** Luis Dorao errepublikar irakasle, *La Libertad* egunkari ezkeriarraren zuzendari eta diputatuak plaka bat du Albeizen.

**ARGAZKIA:** PHOT.OK

**TESTUA:** ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Hiru txirrindulari profesionalen jaioterria da Lautadako herri txikia: Alberto Lopez de Munain (1972) txirrindularia hemen jaio zen. 1996tik Euskaltel-Euskadi taldean luxuzko laguntzailea izan zen, hamaika denboralditan. Lau garaipen lortu zituen 2000 eta 2001 urteen artean. Asturiasko itzulian, Alcobendasko klasikoan, eta Dauphine Liberen. 2005. urtean Giroan istripu larri bat izan zuen, eta erretiroa hartu zuen. Luis Maria Diaz de Otazu (1966) txirrindulari profesionala ere, Once taldekoa, bertakoa da. 1988tik 1998ra aritu zen profesionaletan, laguntzaile modura. Amateurra zela, Valenciaga Memoriala irabazi zuen, 1986an. Antonio Berasategi (1978) Kaiku taldeko profesionala ere bertan jaio-takoa da.

Albeiztarrek bizikletari eta kirolari dioten zaletasunaren leku-

ko da herriko erdigunean jarrita dauden eskultura eta plaka.

Kirolarekin batera, gastronomia da Albeizko plater nagusietako bat. Izan ere, 2018an, Arabako Eztizaleen Elkarteak urtero antolatzen duen Arabako Eztiaren Txapelketan, Felipe Garcia de Albenizek eta Marina Lopez de Aberasturik lehen saria eraman zuten,



beste 25 produktoreren artean. Amezutxu izena duen ezti egi-ten du familiak, eta batik bat haritzondokoa da. *Mielato* esaten diote Lautadan ezti klase horri. Ezti bezala, Lautada osoan oso preziatua den Idiazabal gaztaren ordezkari bat dute herrian, Felix Lekuonaren gaztandegia hain zuzen.

Ondarea, historia eta inguru naturala dira Albeizek gordetzen dituen beste harribitxiak. Uman- dia, Albeiz, Olano eta Ballo mendien artean kokatuta dago, eta Inaziotar Bidea bertatik igarotzen da.

Herriaren ondare nagusiak San Joan Bataiatzailearen eliza, XII. mendeko Amamioko San Joan ermita erro- manikoa, eta ibaiaren inguruan dauden bi errota dira. Inguruetan, erromatarren garaiko dekorazio-puska bereiz- garriak topatu dira. Izan ere, sarri aipatu izan da egungo Albeiz Pliniok aipatu- riko Albaniarren biztanleriarekin zerikusia duela.

# Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

PARTE HARTU [www.alea.eus/zozketak](http://www.alea.eus/zozketak)

## Irabazleak:

**Hala Bedin afaria:** Gotzon Etxeberria Agiriano.

**Zinemarako sarrera bikoitza:** Ane Bedaio Pascual.



## Lisabö eta Mursego

### Bi sarrera solte

Lisabök eta Mursergok kontzertua eskainiko dute martxoaren 21ean, osteguna, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. ALEA bi sarrera solte ditu izena ematen dutenen artean zozkatzeko. Martxoaren 19an amaituko da apuntatzeko epea.



## 6D ekografia

### Askabide klinikan

Gasteizko Askabide Klinikaren eskutik 6D ekografia-saio baten zozketa antolatu dugu. Ekaina aurretik egiteko. Parte hartzeko, eman izena martxoaren 26a baino lehen.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

[alea.eus/harpidetzak](http://alea.eus/harpidetzak)



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@alea.eus](mailto:harpidetza@alea.eus)

# AGENDA Martxoaren 15etik 21era

## Euskararen agenda

### MUSIKA

#### LEGUTIO Xabi Bandini

*Ostirala 15, 20:30ean, kultur etxean.*

#### GASTEIZ Zoo

Ziklone taldearekin batera. Muinoko Hotsak zikloaren barruan.

*Ostirala 15, 21:00etan, gaztetxean.*

#### GASTEIZ Azken Hatsa

Ostias y Kopon taldearekin batera. *Astelehena 18, 21:00etan, Urban Rock Concept aretoan.*

#### GASTEIZ Berri Txarrak

*Asteartea 19, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.*

#### GASTEIZ Lisabö

Mursegorekin batera. *Osteguna 21, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.*

#### GASTEIZ 'Kalaportu' ikuskizuna

Joseba Sarrionandiaren testuekin sortutako kantuen bilduma. Besteak beste, Mikel Urdangarin, Audience, Miren Narbaiza (MICE), Ines Osinaga, Dana eta Xendarineko Ahizpekin. Uxue Alberdi eta Harkaitz Cano idazleekin. *Osteguna 21, 20:30ean, Principal antzokia.*

### BERTSOLARITZA

#### DULANTZI Arabako Bertsolari Txapelketa

Bigarren final erdia. Aroa Arrizubieta, Paula Amilburu, Beñat Garaio, Ricardo Gonzalez de Durana, Oihane



ALEA

#### GASTEIZ Manez eta Kobreak

Thierry Biscaryk eskainitako kontzertua, musikari talde batek lagunduta. *Igandea 17, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*

Perea eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin.

*Larunbata 16, 17:30ean, kultur etxean.*

### HITZALDIAK

#### GASTEIZ Parmera

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloaren barruan. Sara Agnetti italiar-euskaldunak aurkeztuko du hizkuntza. *Asteazkena 20, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*

### HAURRAK

#### GASTEIZ Eskulan lantegia

Harriak margotzen ikasteko lantegia antolatuko dute. 7-13 urte bitarteko umeentzat. *Ostirala 15, 18:30ean, Zabalganeko gizarte etxean.*

#### LAUDIO Sorgin zapatuak

Kimika saio berezia umeentzat. 5 urtetik gorakoentzat. Ondoren askaria izango dute. *Larunbata 16, 17:30ean, Zubiko etxean.*

### BESTELAKOAK

#### GASTEIZ Ogi eta goxo dastaketa

Mamia okindegiak antolatutako dastaketa. Ogia nola egiten den ikusteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Aurretik izena eman behar da. *Ostirala 15, 17:30ean, Mamia okindegian.*

#### VILLABUENA Mintza Topa

Arabako ardoa ezagutu eta dastatuko dute aurreko mintzalagunek Candido Besa upategian. Aurretik izena eman behar da Geu elkartearen. *Larunbata 16, 10:30etik 19:30era.*



### GASTEIZ 'Rojo' antzerkia

Juan Etxanobe eta Ricardo Gomez aktoreekin.  
Ostirala 15, 20:30ean, Principal antzokian.

### GASTEIZ GEUrekin mendira

Egileta-Birgara ingurua bisitatuko dute mendizaleek.  
Igandea 17, 08:30ean,  
Mendizorrotzeko aparkalekutik abiatuta.

## Beste batzuk

### MUSIKA

#### ARTZINIEGA Japoniako musika tradizionala

Larunbata 16, 20:30ean,  
Agustindarren komentuan.

#### GASTEIZ Tremenda Jauria

Larunbata 16, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

#### GASTEIZ Niki Hill

'Feline Roots' albuma aurkeztuko du.  
Larunbata 16, 22:30etan, Hell Dorado aretoan.

### GASTEIZ Udal Musika Banda

'El Olimpo de los Dioses' emanaldia. Iker Olazabal zuzendariarekin. Gasteizko Udal Musika Bandaren eskutik.  
Asteazkena 20, 20:00etan, Principal antzokian.

### ANTZERKIA

#### ZIGOITIA 'La vuelta al día en 80 mundos'

Expressyourclown taldearekin.  
Larunbata 16, 19:00etan, Zigoitia aretoan.

#### AMURRIO 'Sex o no sex'

Clown emanaldia Virginia Imaz aktorearekin.  
Larunbata 16, 20:00etan, Amurrio antzokian.

### BESTELAKOAK

#### AMURRIO 'La luz de aquella tierra'

Javi Larrauriren proiektua. Emakume errepublikarrak deserrian.  
Martxoaren 29ra arte, La Casona erakusketa gunean.

#### MOREDA Olioaren Azoka

Gastronomia eta nekazaritza azoka.  
Larunbata 16 eta igandea 17, Oion eta Moredan.

# LAGUNDU HIRIA GARBI MANTENTZEN



Zabor poltsak edukiontzi eta buzoietan utzi



**681 102 020**

